

Bertsolaritza eta euskararen normalizazioa gune erdaldunetan

Algortako Bertsolari Eskolaren (ALBE) kasua



HIZNET 2014-2015
Sakontze egitasmoa
Olatz Larrinaga Caballero
Tutorea: Jone Miren Hernandez

Aurretik hitz batzuk...

Eskerrak eman nahi dizkiot Algortako Bertsolari Eskolari lan hau egiteko inspirazioa eta abiapuntua izateagatik. Horrez gain, lan honetan laguntzeko prest agertu diren ALBEkideei. Eskerrik asko!

35 urte, hitza bihurtzen arte!

*“Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra hor zer kirol mota
den bertsolaritza.” (Xabier Amuriza)*

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. ZERGATIK LAN HAU?..... | 3 |
| 1.1. Lanaren egituraketa | |
| 1.2. Euskararen normalizazio prozesua | |
| 1.3. Ahozkitasuna | |
| 2. BERTSO-ESKOLAK..... | 7 |
| 3. BERTSOZALE ELKARTEA..... | 9 |
| 3.1. Elkartearen aurretik | |
| 3.2. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte | |
| 3.3. Bizkaiko Bertsozale Elkarte | |
| 3.4. Elkartearen proiektuak | |
| 4. ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA..... | 14 |
| 4.1. Algorta. Getxo. Uribe Kosta. | |
| 4.2. ALBE | |
| 4.3. Ekimenak | |
| 4.4. ALBE, euskararen arnas-gunea | |
| 4.5. Etorkizunari begira, zer? | |
| 5. ONDORIOAK..... | 23 |
| 6. ERANSKINAK..... | 24 |
| 7. BIBLIOGRAFIA..... | 27 |

1. ZERGATIK LAN HAU?

Euskal Herrian bertsozaletasuna badagoela gauza jakina da; baina, kontziente gara bertsolaritzak zelako eragina duen euskararen hizkuntza normalizazio prozesuan?

2015eko otsailean hasi zen nire ibilbidea Algortako Bertsolari Eskolan (ALBE). Ez dut zehazki gogoratzen noiz izan zen nire lehenengo hartu-emana bertsolaritzarekin, baina bai gogoratzen dut joan izan naizen saio bakoitzetik inbidiarekin irten naizela; iruditzen zitzaidan bertsotan aritzeko nik ez nuen gaitasun bat behar zela. Zoratu egiten ninduen mundu horrek; bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak... Denek paper garrantzitsu bat betetzen zutela iruditzen zitaidan.

35. urteurrena zela eta, gai-jartzaile eta epailetza ikastaroak antolatu zituen Algortako Bertsolari Eskolak eta bertsolaritzan sartzeko bide posible bat zela ikusi nuen. Bertsolaritzan sartzeko ez nuen derrigorrezkoa ikusten bertsolari izatea; Euskal Herrian badaudelako nahikoa bertsolari on. Beraz gai-jartzaile edo epaile izatearen ideiak bultzatu ninduen ikastaroetan izena emateko. Ikastaroak eta gero, Algortan egiten den sariketa bateko gai-jartzaile taldean egoteko gonbitea luzatu zidaten. Ikastaroan eta sariketan izandako giro onak bertso-eskolan hasteko gogoia eman zidaten.

Oasi bat. Algortako Bertsolari Eskola euskaltzaleon oasi bat da Getxoko erdalgunean. Eta ALBEren eragina euskararen normalizazio prozesuan ikerketa gai interesgarria izango zela pentsatu nuen eta hemen nau, ikerketa horren hasierako lerrook idazten.

Hitz potoloak dira “bertsolaritza” eta “euskararen normalizazioa” kontzeptuak. Sakontze egitasmorako ikergaia erabakitzea izan zen lehenengo lan handia. ALBE aztergaia izango zela argi izan nuen hasieratik; hori izan baitzen lana egiteko inspirazioa. Burura etorri zitzaidan lehengo gaia “gazteak eta bertso-eskolak” izan zen, bertso-eskolek gazteen euskararen eta euskararen transmisioan zelako eragina duten aztertzeke.

Baina nola lotu bertsolaritza, ALBE eta euskararen normalizazioa? Bertsolaritza eta euskararen normalizazioa gune erdaldunetan izenburupean. Behin ikergaia zehaztuta, lan ildoak baino ez ziren falta. Hasieran bi bertso-eskolen arteko konparaketa egitea bururatu zitzaidan; bata gune erdalduneko eta beste euskalduneko. Argi ikusten nuen arren, berehala konturatu nintzen ALBEren handitasuna nahikoa zela frogatzeko bertsolaritza eta bertso-eskolak, batez ere, bere lekua duela normalizazioan. Baina bertso-eskola batek zein funtzio dauka gune erdaldun batean? Galdera horri erantzuten saiatuko gara hurrengo orriotan.

Aztergaiaren mugak eta norabidea ondo finkatu ondoren, bibliografia kontsultak eta gaien adituak (edo arituak) besterik ez ziren falta. Orokorrean denak azaldu dira laguntzeko eta azterketa honetan parte-hartzeko prest, baina elkarrizketa guztiak prestatu, egin eta entzuteko denbora gutxi zegoenez, batzuk aurrez aurre eta besteak idatziz egin dira. Hartu-emana emailaz izan da Word dokumentu batean eta aurrez aurreko grabaketak mugikorrekin egin dira. Adin tartea garrantzitsua izan da baina batez ere bertsolaritzan eta ALBEn duten papera izan da garrantzitsuagoa. Hauek izan dira aukeratu ditudan informanteak:

- B. V: Algortako Bertsolari Eskolako irakaslea
- J. S: Algortako Bertsolari Eskolako koordinatzaile eta arduraduna
- N. A: bertsolaria eta bertso irakaslea
- I. P: bertsolaria eta bertso irakaslea
- J. L: bertsolaria eta bertso irakaslea
- P. L: bertsolaria eta ikaslea
- M. B: bertsolaria eta ikaslea
- U. M: bertsolaria eta ikaslea

1.1. Lanaren egituraketa

Lan honek hiru atal nagusi ditu. Ezin daiteke ALBEn errealitatea ulertu arinago bertso-eskola bat zer den eta Bertsozale Elkartearen zereginak jakin gabe.

1. Bertso-eskolak

- Sorrera ezagutzea
- Helburuak ezagutzea
- Hauen tokia normalizazio prozesuan aztertzea
- Hauek transmisioan duten garrantzia aztertzea

2. Bertsozale Elkartea

- Euskal Herriko eta Bizkaiko Bertsozale Elkartearen sorrera eta helburuak ezagutzea
- Elkartearen eragina euskararen normalizazio prozesuan aztertzea
- Bertsozale Elkartearen proiektuak/ekimenak ezagutzea

3. Algortako Bertsolari Eskola (ALBE)

- ALBEn sorrera eta garapena ezagutzea
- Testuinguruaren ezaugarriak eta bertsolaritzak euskararen nola eragiten duen aztertzea

-
- Partaideen profila, jarrera, iritzia...ezagutzea
 - ALBEren ekimenak ezagutzea
 - ALBEren ekimenek herrian duten eragina/ondorioak ezagutzea
 - Etorkizuneko erronkak ezagutzea

1.2. Euskararen normalizazio prozesua

Lehenik eta behin euskara normalizazioa prozesua zer den eta nondik datorren jakitea ezinbestekoa da lan hau ulertu ahal izateko.

Euskararen normalizazioa euskararen berreskuratze eta erabilera sustatzeko politiken multzoa da, galbidean dagoen hizkuntza gutxitua izatetik hizkuntza normaltasunez erabilia eta transmititua izatera. XVIII. mendetik atzerakada nabarmena jasan ondoren, 1980ko hamarkadan hasi ziren euskararen normalizazio politikak abiarazten gobernu erakundeen aldetik. Horrela, 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak euskara Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizial moduan, gaztelaniarekin batera, jasotzea euskararen normalizaziorako lehenengo mugarri garrantzitsutzat jo daiteke. 1982 urtean Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea plazaratu zen EAEn (Wikipedia, 2015).

Hainbat mendetako galera prozesuari buleta emateko asmoz, aspaldi abian jarritako Euskaren Normalizazio Planak Euskal Herriko hainbat esparru ukitu ditu, guztiek izaera bertsua ez izanagatik. Ildo horretatik, normalizazio eginkizunean bertsolaritzak ere badu zer hausnartu, jorratu eta eskainia.

Bertsolariak, hizkuntza komunitatearen partaide gisa, hainbat informazio jasotzen du bere ingurutik, eta handik jasotzen duena prozesatuta bertsotan berrekoizten dio gizarteari. Ekoizpen horrek, hizkuntza komunitatean esparru linguistiko eta kulturean eragiteaz gain, euskararen normalizazio prozesuari laguntzen dio (Bertsolaritzaren Curriculuma Hezkuntza Arautuan)

1.3. Ahozotasuna

Aspaldiko urteetan, eskolako hezkuntza paperekora mugatu ohi da. Dena da idatzizkoa, dena da liburukoa. Behar bada, horregatik galdu ditu kaleko hizkerak berak ere bat-bateko freskotasan eta bizitasunak. Bertsolaritza izan daiteke, beraz, oraindik ere, ahozko espresio jatorraren erabilpena berreskuratzeko bideetariko bat.

[J.L.]: *Ahokotasuna hizkuntza baten oinarria da, baina eskola mailan oraindik hizkuntza idatziaren gerizpean bizi gara, "hutsuneak betetzen". Laburpen bat, gutun bat, azalpen idatzi bat egiteak badu bere garrantzia, baina zertarako hori dena umeek euskaraz emozio bat (haserrea, atsegina, poza...) adierazteko, neska edo mutil batekin ligatzeko, jolasteko edo informalki berba egiteko gai ez badira? Batez beste umeek 14 bat urte ematen dute euskal ereduetan eskolaturik, baina kalera joan, euskaraz bere esparru naturalean hasi eta ez dira ezer. Bertso mundua ahokotasunerako abiapuntua izan liteke, sormena tarteko euren barruko zerbait ekoiztu behar baitute.*

Bertsolaritzan eta bertsogintzan oinarritzen bagara, hizkuntzaren funtzio komunikatiboa izan liteke bereziki eta gehien bat landu daitekeena, bide batez, ahokotasunaren ezaugarri propioak ere landu eta erakutsi daitezkeela ahaztu gabe:

- Errima
- Metrika (silabak, diptongo, hiato, hanka-luze, hankamotz, sinalefa, etena...)
- Atzekoz aurrerako teknika
- Ahozkoaren kontrakzio eta arau propioak
- Irudiak (metafora, elipsia, konparaketa, errepikapena...)

Helburua, beraz, euskara lantzeko orduan, ahozko elementu batetik abiatzea da. Koplen bidez, kantuen bidez, bertsoen bidez... euskara landu (Kazabon, Mendizabal, 1993).

Bertsolaritza diskurtso neurtu, errimatu eta kantatuen artea da. Bertsolariak, arte horretan diharduen sortzaileak, bigarren batek proposatutako gai baten zein berak hautatutako beste baten inguruan pieza bat -bertso bat- kantatzean datza bertsolaritzaren performancea; artistak neurri eta hoskidetasun arau zorrotzak bete behar ditu, eta bertso-paperekin kasuan salbu, denbora-tarte laburra dauka gaia entzuten duenetik bertsoa pentsatu eta kantuan hasteko. (Paya, 2013)

2. BERTSO-ESKOLAK

Euskal Herriko ahozko ondarea antzinakoa bada ere, bertso-eskolak ez ziren 1974. urterarte sortu. Francoren azken eta trantsizioaren lehenengo urteak ziren eta bertso giroa oso apaldua zegoen, baina hala ere dozena bat bertso-eskola jaio ziren:

| | |
|-----------------------------|-------------------------|
| Leintz (1974) | Aiara (1982) |
| Santutxu, Bilbo (1979-1980) | Bergara (1982) |
| Algorta, Getxo (1980) | Tolosa (1982) |
| Hernani (1981) | Iparraldea (1982) |
| Oiartzun (1981) | Ordizia, Goierri (1982) |
| Mungia (1981) | Oñati (1983) |
| Gazteiz (1982) | |

Bertso eskolak non sortu ziren ikusita, ez dirudi arrazoi geografiko, ez linguistiko, ez sozialik dagoenik.

| | |
|--|--|
| IKASTOLAN SORTUTAKOAK | Zumaia, Oiartzun, Leintz |
| XABIER AMURIZAREN HITZALDIETATIK SORTUTAKOAK | Santutxu, Hernani |
| ELKARTEEN INGURUAN SORTUTAKOAK | Goierri (Argi Berri elkarte gastronomikoa) |
| BESTE BERTSO ESKOLETATIK SORTUTAKOAK | Mungia, Algorta |

Historian gertatzen diren gauza batzuk, itxura guztien arabera ematen du kasualitatea direla. Hau nondik sortu da hemen? Baina gero konturatzen zara antzeko zerbait sortu dela han, beste bat haruntzago... Mugimendua zerbait bizia da, baina nola sortu eta eragiten duen? Ez da erraza aztertzen. (Dorronsoro, 2007: <http://www.argia.eus/bertso-eskolak/historia>)

Bertso eskolen helburua herriko harrobia lantzea zen eta horretarako, eskolak elkarrekin eta denentzat antolatu zituzten hainbat ekintza, Foru Aldundiek eta Ikastolen Elkartearekin elkarlanean: ikastoletan bertsolaritza irakasteko egitasmoa, eskolarteko txapelketak, bertso irakaskuntza ikastaroak eta materiala...

Bertsolaritzaren datu-basearen arabera, guztira 2011an 130 bertso-eskola zeuden Euskal Herrian zehar:

Gipuzkoan: 55

Bizkaian: 28

Haurren taldeak: 29

Helduen taldeak: 21

Nafarroan: 16

Araban: 15

Lapurdin: 10

Nafarroa Beherean: 4

Zuberoan: 2

Bertso-eskola esaten denean ez da ulertu behar nagusiki akademia modura, pedagogia funtzioaz gain sarritan eta bereziki talde-bertsotarako guneak izaten baitira ezer baino lehen. Izaera ezberdineko bertso-eskolak ditugu, hala ere: batzuk informalgoak, besteak etorkizuneko bertsolariak zailtzeko eta trebatzeko asmo zehatzagoarekin jokatzeko dutenak. Nolanahi ere, hezkuntza arautuan egiten den bertsolaritzaren irakaskuntzatik haratago, gune hauek bat-bateko bertsogintza taldean lantzen eta gozatzen dute, eta bertsolaritzaren inguruko beste hainbat jardun garatzen dituzte. (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001)

3. BERTSOZALE ELKARTEA

3.1. *Elkartearen aurretik*

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak sortu aurretik, Euskaltzaindia zen Txapelketa nagusiak antolatzeaz arduratzen zena. 1984an Euskaltzaindiak bere hirugarren Txapelketa Nagusia antolatu zuen eta hainbat bertsolarik izen eman zuten.

1982ko txapelketaz geroztik, bertsolariek euren artean hainbat eztabaida eta kezka azaldu zituzten Euskaltzaindiari eta bakar batzuk argitara eman ere bai. Bertsolarien eskakizun garrantzitsuenak ez zituztenez onartzen, bertsolariek beste bilera batera deitzea erabaki zuten, eta 84ko txapelketarako izena emanda zeuden guztiei deitu zieten. Xabier Amuriza lehenengoa izan zen baja ematen eta gainerakoek berdin egin zuten.

Orduan, txapelketa berri bat antolatzea adostu zuten 48 bertsolarik:

Nahiz Euskaltzaindia aspaldi honetan aritu den Bertsolari Txapelketak apailatzen, gerra aurrean Euskaltzaleak Elkarteak ekin zion bide beretik eta bertsolaritza indartu nahirik, bertsolari talde batetik, antolatzeke gogoia erakutsi duenez gero, Euskaltzaindiak ez du oraingoz txapelketarik eratuko. (Barandiaran, 2012)

1986ko martxoaren 23an, bertsolariek antolatutako lehen Txapelketa Nagusiaren finala jokatu zuten Donostiako Belodromoan. Sebastian Lizasok jantzi zuen txapela.

Azken txapelketa hura eta gero, zenbait galdera jarri zituzten mahai gainean, geroago Elkartearen oinarriak finkatzeko izango zirenak.

3.2. *Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak*

Elkarteak sortzeko bilerak Zarauzko ikastolan egiten hasi ziren batzuk 1986ko udazkenean. Beste batzuk Bilbon elkartu ziren lana, ikasketak... zirela eta. Bilboko talde horretan hasi zen elkarte bat sortzeko ideia. Denak batu zirenean, erabateko adostasuna egon zen Elkarteak kultur proiektu gisa definitzeko.

1987ko martxoan, Elkarteak zer eta nolakoa behar zuen adierazteko, *Bertsolari Elkarteak sortzeko Erizpide Nagusiak* izeneko dokumentua aurkeztu zuen Elkartearen estatutuak prestatzen ari zen koordinazio taldeak. Dokumentu horretan oinarrituta, 1987ko ekainaren 18an eratu zen Bertsolari Elkarteak, Donostiako Udaletxeko Batzar Aretoan, 158 lagun bertan

zirela. Ohorezko bazkideen izendapena adostu zen; Imanol Lazkano hautatu zuten Elkarteko lehendakari.

Euskal Herri osoa jomugan abiatu zen Elkarre berria, baina ordurako, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian jada martxan zeuden bertsolari elkarteak: Ipar Euskal Herrikoa lehena 1980ko ekainean eta Nafarroakoa ondoren, 1984ko azaroan.

Bertsolari Elkarrearen hasierak ez ziren errazak izan; izan ere, kritika asko jaso zituen gertuko esparruetatik, literatura eta herri poesiatik, adibidez. 1989an ere, Elkarreak antolatutako lehen Bertsolari Txapelketa Nagusian tentsioak eta eztabaidak izan ziren epaimahaikoak aukeratzeko. Tentsioz betetako bileren ondorioz, adostasunera iritsi ziren: lau epaimahaiko gipuzkoarrak izango ziren, beste lau bizkaitarrak eta Iparraldeko bat. Zail samarra izan zen, baina arrakastatsua ere bai; proiektuaren aldeko borondatea nagusitu zen.

1986ko hasiera hartatik argi zegoen ez zela bertsolarien elkarre. Elkarre bultzatzen eta bertako zereginetan pisuaren zati handia bertsolari ez diren bertsozaleek izan dute eta dute. Horregatik 1995ean izena aldatu zitzaion: Euskal Herriko Bertsozale Elkarre.

3.3. Bizkaiko Bertsozale Elkarre

Legalki, Santutxuko bertsolari eskola izan zen bertso munduko lehen elkarre juridikoa. Bizkaiko Bertsolari Ikasleen Elkarre (BBIE) sortu zuten. Gobernu zibilak ekintza asko debekatzen zituen garaian, saio mordoxka antolatzeko aukera izan zuten, izaera juridikoari esker. Bizkaiko Bertsozale Elkarre sortu zenean desagertu zen.

Bizkaian, 1983an sortu zen Bizkaiko Bertsolari Ikasleen Elkarre, Xabier Amurizak 1981ean eratu zuen bertso eskola ereduaren harira. Geroago, Santutxuko Bertso Eskolak bereganatuko zituen haren zereginak eta bi bertso eskolak bat eginik, 1993ko apirilean sortu zan Bizkaiko Bertsozale Elkarre.

3.4. Elkarrearen proiektuak

➤ **Bertso udalekuak**

Bertso udalekuek, 18. edizioa dute aurtengoa, 2015ekoa. Lehen udalekua Hazparden izan zen, 1998an, Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkarreak eta Udal Leku Elkarreak antolatuta.

Euskal Herri osoko haur eta gazteek hartzen dute parte bertso udalekuetan. Euskalki aniztasuna da udalekuon ezaugarrietako bat.

Bertsolariekin zuzeneko harremana ere izaten da udalekuetan. Txanda bakoitzean bertso afaria egiten da, eta gaztetxoek aukera dute euren erreferente direnekin jolasteko, hitz egiteko eta bertsoan jarduteko.

➤ **Bertsoa.com**

Bertsoa.com Bertso Plaza Digitala bertsolaritzaren zabalkunderako komunikazio proiektu berri eta bateratua da, 2006an sortua eta Bertso Plaza Digitala Elkarteak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak lankidetzan argitaratzen duena, orain arteko Bertsoa.com eta Bertso Plaza.tv-ren egitasmo eta lantaldeak bat eginda.

Bertsolaritzaren sormen eta informazio edukiak eskaintzen dituzte, formatu eta euskarri ezberdinetan, zuzenean zein diferituan.

Bertsolaritza bere aniztasunean bildu eta sareratzeko lanean dihardute, bertsozale eta gizarte osoari bertsolaritzaz eta ahozkotasunaz gozatzeko kalitatezko zerbitzua eskainiaz.

➤ **Eskolartekoa**

Haur eta gazteek (LHko 5. mailako gazteetatik DBHko 4. mailako gazteerata) jendaurrean kantatu ahal izateko, harremanak egiteko, euren hurbilekoak bertsozaletzeko eta antolakuntza lanetan ardurak hartzen ikasteko, ikasturtean zehar egiten diren ekimenen bilduma da Eskolartekoa. Ekimen ezberdinok osatzen dute Eskolartekoa: gazteentzat saioak, bertso merenduak, barnetegi eta topaketak, bertso-eskolen egunak, udalekuak, negulekuak, idatzizko sariketak, bat-bateko txapelketa. Eskolartekoaren antolatzaile nagusiak Bertsozale Elkarteak, bertso-eskolak eta Ikastolen Elkarteak dira.

➤ **Gu ere bertsoan**

Ahozko komunikazioa lantzea da proiektu honen helburua -LHko 5 mailatik DBHko 4. maila arte-, horretarako bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz. Bertsolaritzak hizkuntza

normalkuntzan legun dezake, hizkuntza haurren eta gazteen aurrean prestigiatu eta erabiltzeko motibazio pizgarri izan daitekeelako.

Hitzaren bidez egiten den jolasa eta komunikazio ekintza den aldetik, euskal kulturaren adierazgarri arrakastatsua izan da eta oraindik, garaian garaiko hizkuntza eskakizunetara moldatzen jakin duelako.

Gainera, bertsogintzak ahozko adierazpidea hobetzea, komunikazio estrategia eraginkorrak baliaraztea, hizkuntza aldetiko sormena bultzatzea, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztopoak gainditzea, ideiak ordenatzen laguntzea eta komunikatzaile onak hezteko beste zenbait ekarpen interesgarri ekar dakizkioke eskolari.

Beraz, bertsolaritza gure Hezkuntza Proiektuan jasotako helburuak bermatzeko tresna egokia dugu.

Helburuak:

- Bertsogintza bitarteko delarik, ikasleen euskararen erabilpen maila eta kalitatea handitzea.
- Bertsotarako zaletasuna piztea eta bertsogintzari eskolako jardunean funtzionalitatea emanik, zaletuen beharrak eta gogoak elikatzea.

➤ **Mintzola**

Mintzola Fundazioa 2008an sortu zen. Fundazioaren sorreran jarritako oinarri nagusia ahozko tradizioetik ahozkotasunean eragitea da, ipar bezala jarrita dauden bi helburu hauen bidez:

- Ahozko tradizioaren behatzaile dinamikoa izatea.
- gaurko gizarteak ahozkotasunaren alorrean dituen premiei erantzutea.

Bi helburuok elkarren osagarri dira. Lehenengoan oinarrituta bigarrean diharduen erakundea da Mintzola: ahozko tradizioan sakonduz, gizartearen premia berriei erantzun egokia eman nahi dien erakundea da. Horrek bereizten du Mintzola tradizioa azken helburutzat hartzen duten erakundeetatik, baita tradizioari jaramonik egiteke ahozkotasunaren alor berrietan dihardutenetatik ere.

Gaurko gizartean ematen diren ahozko kultur sorkuntzak ardatz hartuta, Mintzola Bertsolaritzaren Ikertegia eta Ahozko Kultur Sorkuntzan ari diren genero bizien Elkargunea da.

➤ **Xenpelar dokumentazio zentroa**

1991ean sortu zuen Bertsozale Elkartek Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ), bertsolaritzaren ondarea bildu, antolatu eta gizarteratuz, maila guztietako ikerkuntza bultzatzeko helburuarekin. Bertsozale Elkartearen sailetako eta herrialdeetako egitasmoei esker eta elkartearen inguruko bertsozaleen bidez osatzen da urtez urte Xenpelar Dokumentazio Zentroak bildu eta eskaintzen duen ondarea.

2007 urteaz geroztik, bere edukiak interneten zabaltzeko datu-basea eraiki du Xenpelar Dokumentazio Zentroak, eta dagoneko eduki ugariaren informazioa aurkitu daiteke bertan.

4. ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA (ALBE)

4.1. Algorta. Getxo. Uribe Kosta.

Algortako Bertsolari Eskolaren eragina ulertu ahal izateko, testuingurua ulertu beharra dago.

Algorta Getxoko udalerrriaren barruan dagoen auzoa da, Uribe Kostako eskualdean. Getxo osatzen duten auzo guztietatik biztanletsuena; Eustaten arabera 2011. urtean 79.815 pertsona bizi ziren Getxon.

| | Ama-hizkuntza |
|------------|---------------|
| Euskara | 5.809 |
| Gaztelania | 67.598 |
| Biak | 3.968 |
| Beste bat | 2.440 |

| | Etxeko hizkuntza |
|------------|------------------|
| Euskara | 3.349 |
| Gaztelania | 70.434 |
| Biak | 4.585 |
| Beste bat | 1.447 |

Nahiz eta datuok 2011koak izan, argi esan dezakegu Getxo herri erdalduna dela; erdiak baino gehiago dute gaztelania ama-hizkuntza eta lehen hizkuntza euskara izan arren, ia denak gaztelaniaz hitz egiten dute.

| | Euskaldunak | Ia euskaldunak | Erdaldunak | Guztira |
|----------------|---------------|----------------|---------------|---------|
| 2-19 | 21.640 | 3.508 | 1.178 | 26.326 |
| 20-39 | 7.435 | 8.286 | 5.066 | 20.787 |
| 40-59 | 4.106 | 8.240 | 11.681 | 24.027 |
| 60 < | 2.014 | 4.756 | 13.632 | 20.402 |
| Guztira | 21.640 | 24.790 | 31.557 | |

Adinen araberako banaketari erreparatzen badiogu 2-19 urte bitarteko gazteak dira euskaldunenak eta erdaldun kopuru gutxien dutenak. Beraz, nahiko datu positiboak dira

euskarari dagokionez adin tarte horretako biztanleak izango baitira euskararen ondorengotaratzea ahalbidetuko dutenak.

Bertsolaritzak ere, badauka lekua Getxoko Plan Estrategikoaren barruan; izan ere, 2003an Getxoko Udalak onartutako I. EBPNan (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) “ahozko adierazkortasuna lantzea bultzatzea dezaketen ekintzak laguntzea” onartu zuten; bertsolaritza tartean. Geroago, 2013an “euskara sustatzeko programa bereziak gauzatzea” neurria hartu zuten eta bertsolaritza hezkuntza arautuan ezartzea erabaki zuten.

Getxoko Udalak euskal kanta eta bertsolaritza eskolak eskaintzen dizkie herriko ikastetxeei eskola orduetan. 2014-2015 ikasturtean 1.017 ikaslek jaso dituzte klase hauek.

Euskal kanta: 452 ikasle

Bertsolaritza: 565 ikasle

4.2. ALBE

Andoni Iriondo eta Trino Azkoitiak sortu zuten bertso eskola, 1980an, nahiko era informalean. Talde naturala osatzen zuten lagun taldea zen, inguruko zenbait bertsozalez osatutakoa, eta Algortako Zabala ikastetxeko geletan biltzen ziren elkarrekin bertsoetan egiteko:

[J.S]: *Bertso zaharrak kantatzen zituzten. Hasiera-hasierako eskolak ez ziren oso akademikoak izan...[...]askotan gazta eta sagardoa eramaten zuten jarduna arintzeko.*

Lehen urtea eta gero San Nikolas ikastolara aldatu ziren, eta eskolak arlo ludikoa gordetzen zuten arren, lehen baino talde konprometituagoa osatzen zuten: kalera irten, ekitaldietan kantatu...

Ondoren, 1985ean, giroak beherantz egin zuen. Jende askok utzi zion bertso eskolara joateari. Beherakada hura ikusita, zerbait egin beharra zegoen eta ikastetxeetan bertso eskolak ematen hasi ziren; Algortako San Nikolas ikastolan lehenik, eta Sopelako Ander Deunan eta Leioako Gobelan ondoren. Joseba Santxo hasi zen irakasle lanetan, eta oso garrantzitsua izan zen eskoletan egindako lana.

Hurrengo urteetan eskolakideen jarduna zabaltzea izan zen zeregin nagusia: bertsoetan ikasi eta irakatsi, plazan kantatu, ekitaldiak antolatu, irratsaioak egin, prentsan kolaboratu, herria girotu... Bertso-eskola nahiko indartsu zegoen, eta lan handia egin zen bai eskolan, bai eskolaz kanpoko ekimenak antolatzen.

1995ean eskola legezko elkarte izendatu zuten¹. Orduan jarri zitzaion izen ofiziala: Algortako Bertsolari Eskola (ALBE). Algortakoa *bertsolari* eskola zela (eta dela) aldarrikatu nahi izan zuten.

20. urteurrena ospatu zuten 2000. urtean. Algortako Bertsolari Eskola indartsu zegoen, eta etorkizunari buruz euskarriak sendotzea izango zen hurrengo urteetako erronka. 2001ean, bazkide sistema martxan jarri zuten. Horren bitartez, eskualdeko bertsozale guztiak bildu nahi zituen ALBEk. Bertsolari gazteen Abra saria abian jarri zuten, bertsolaritzan lan egin duen jendea eskertzeko AHOB! sariak ere sortu zituzten.

Gaur egun eskolak ematen jarraitzen dute urte guztian zehar Aldai Patronatuko (Algorta) kulturguneko gelan. Aipatzekoa da, hasi zirenetik gaur egun arte, beti izan dela astearteetan bertso eskolako hitzordua. Egoitza berrian sartu zirenean ere, horixe izan zen jarri zuten baldintza bakarra: euren gela izango zena, astearteetan libre izatea.

4.3. Ekimenak

Algortako Bertsolari Eskola eta Udaleko Euskara Zerbitzuaren lankidetzari esker, hainbat dira bertsolaritzak Getxon dituen hitzorduak, udalerrian tradizio bihurtu direnak.

➤ **Abra saria**

Lehenengo sariketa 2002an izan zen eta oso helburu eta asmo sinpleak izan zituen:

- Bat-bateko eskola gaztea izanik, bat-bateko gazteen lehiaketa antolatzea
- Era honetako txapelketa gutxi zeuden orduan Euskal Herrian, eta are gutxiago Bizkaian

Sariketa martxan jartzeko honako irizpide hauek beharrezkoak izan ziren: Euskal Herri mailakoa izatea, gazteentzako izatea, saio bakarrekoa, ALBEko gazteen promoziorako izatea...

Ezaugarri batzuk aldatu egin dira urteotan; hasieran, aretoan egiten zen, eta aspaldian bertso-afari formatuan. Baina funtsean hasierako espirituari eutsi zaio. Abra saria erreferente bilakatu da Euskal Herri mailan, eta urteko bertso-agendan lehendabiziko zita izaten da era honetako sariketen artean.

¹ Ikusi eranskina

➤ **Balkoitik Balkoira**

Bi bertsolarien arteko aurrez aurreko duelua da, bakoitzak balkoi batetik kantatzen duelarik. Algortako Portu Zaharrean urtero zalez betetzen duen ekimen honek, Tolosan 1802an jatorria duen usadio bat gogora ekartzen du.

1999an Egaña eta Lizaso izan ziren lehenengoak saio honetan parte hartzen. Lehenengo saio hura Algortako San Nikolas plazan egin zen baina hurrengo urtetik gaur arte, urtero egin izan da Portu Zaharreko Etxetxu plazan. Ideiak, Josebak aitortu digunez, Villabonako 1801eko bertso-desafio mitikoan dauka oinarria. Han Txabalategi hernaniarrak eta Zabala amezketarrak bertso-saio “maratonianoa” egin zuten balkoitik balkoira 4.000 entzuleren aurrean.

➤ **Bertso saio mundiala**

Bertso Saio Mundialak, bertsolaritzaren berrikuntza du helburu, bai gaiak aukeratzekoan baita gaien tratamenduan ere. Bertsolarien arteko elkarreragina eta bertsolarien eta jendearen artekoa ere lortu nahi ditu.

Lehenengo saioa 1999an izan zen. Hasierako asmoa formatu handiko jaialdi erakargarria egitea izan zen. Izen handiak ekartzea zegoen aurreikusita. Joseba Santxok aitortu duenez, espermentalismo bidea bidean-bidean sortu zen:

Lehenengo saioa nik gidatu nuen, eta gogoan dut Jon Sarasuaren “egiaren makina”ren paperean jarri nuela. Jon makina-ahotsa kantatzen hasi zenean, denok ohartu ginen han jarrera aldetik, zerbait berezia egiteko gogoia zegoela. Beste gai batean, Jon Sarasua eta Sebastian Lizaso Estrasburgora bidali nituen euskaldunon ordezkari, Asterix eta Obelixen larruan. Jendeak gaiak ere txalotzen zituen, eta horrek gai-jartzailearen sublimazioraino eraman gaitu apurka-apurka.

➤ **ALBE gala**

Bertsozaleek Getxon izaten duten urteko azken hitzordua abenduko ALBE Gala da, non tokiko bertso-eskolak urteko errepassoa egiten duen irudi eta bertsoen bitartez. Lehenengoa 2000. urtean izan zen eta helburu bikoitza izan zuen:

1. ALBEren urte osoko bertso-jardunei errepassoa ematea

2. AHOB! sarien ekitaldia izatea

Joseba Santxok honela deskribatu digu hasierako ideia eta garapena:

AHOB! sarien ideia bertso munduko “oskar” modukoak izatea zen, eta baita euskal gizartean eragitea. Gaur egun, ekitaldi hori zaharberritzen ari gara, eta aurtengo ekitaldian hemendik aurrerako asmoa erakutsiko dugu. ALBE gala ALBEren urteko lanen erakustaldia izaten jarraituko du.

Ekitaldian bertsolari gazteenek ere parte hartzen dute eta Balendin Enbeita bertso-paperen saria banatzen da.

[Olatz Larrinaga]: *Getxon eta Uribe Kostan bertsozaletasuna dagoela esango zenuke?*

[J.S]: *Gaur egun, Getxo eta Uribe Kosta bertsozaleak dira, neurri handi batean ALBEren urteetako lanari esker.*

[Olatz Larrinaga]: *Zelako harrera izaten dute ALBEko ekintzek?*

[J.S]: *Oso ona. Publiko fidela dugu, irrikaz egoten dena ekitaldien zain.*

2014an, Getxoko Udalarekin elkarlanean, 3 ekitaldi nagusi antolatu ziren. Kultu Etxeko datuen arabera esan dezakegu edukierak bete egin zirela:

Balkoitik Balkoira: 300 pertsona

Bertso saio mundiala: 700 pertsona

ALBE gala: 150 pertsona

Guztira 1.150 pertsonak hartu zuten parte ALBEren 2014ko ekitaldietan. Datu horiei beste hainbat ekitaldi gehitu behar zaizkie: Algortako jaietako bertso-saioak, bertso-maratoia, Uribe Kostatik antolatzen diren bertso-saioak... Ez oso kopuru handia, baina kontutan hartzen badugu Getxo ez dela herri euskalduna eta gehiengo ez dela euskaraz bizi, nahiko kopuru itxaropentsua da datozen urteei begira; izan ere, urtetik urtera Getxoko euskaldun berrien kopurua hasten joan da eta bertsoa kopuru hori hasteko arrazoi bat izan daiteke:

| 1.986.urtea | 1991.urtea | 1996.urtea | 2001.urtea |
|-------------|------------|------------|------------|
| 3.819 | 5.361 | 8.647 | 9.227 |

[I.P]: *Tabernetako gizon zahar eta mozkorren ofizio hura, euskara biziberritzeko tresna bikaina bilakatu da.*

4.4. ALBE, euskararen arnas-gunea

ALBEren 35. urteurrena aurkezteko ekitaldian Imanol Landak, Getxoko alkatea, honela deskribatu zuen bertso-eskola:

ALBE segur aski Euskal Herriko bertso eskola potenteena da edo indartsuenetako bat, eta bere lanak emaitzak eman eta ematen segituko du. Ildo horretan berezi, azpimarratzekoa eta txalotzekoa da Getxo moduko herri batetan bertsolaritza hain arrakastatsua izatea.

Une honetan 100 bat lagun (gazteak eta pertsona nagusiak) ari dira eskolara joaten astero eta inguruko eskoletan 60 bat ume dabilta eskolaz kanpoko bertso-eskoletan. Honi gehitzen badiogu udalerriko ikastetxeetan eta institutoetan bertsolaritza eta ahozkotasan-klaseak jasotzen dituzten 700 bat gazte, eta antolatutako saio tradizional eta berritzaile ugari, esan dezakegu, bertsolaritza Getxon sustraituta dagoela.

[Olatz Larrinaga]: *Uribe Kostan euskara sustatzeko bertso-eskola bat beharrezkoa dela/zela uste duzu euskara bultzatzeko?*

[J.S.]: *Oso tresna garrantzitsua izan zen orduan, eta bada gaur egun ere. Alde batetik, euskara hutsez aritzen delako, eta eskualdean kultura talde gutxi daude euskara hutsez aritzen direnak. Eta bestetik, euskalduntze -edota alfabetatze- prozesuaren amaieran, ikasleek ez dute izaten non jarraitu euskara praktikatzen eta hobetzen. Bertso-eskola primerako jarduera da zeregin horretarako. Gainera, giro onean eta ondo pasatuz egiten da, ez du ahalegin akademikorik eskatzen.*

2012an Berria egunkarian Xabi Payari egindako elkarrizketan, bertso-eskolen helburua gozatzea dela esan zuen eta euskara, tresna bat. Ondorioz, euskararen normalizaziorako egitasmo iraunkorragoa eskaintzen dute bertso-eskolek, euskaltegiek baino.

2011an Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek akordioa sinatu zuten Euskal Curriculumaren barnean bertsolaritzari dagokion tokia zehazteko eta ikasmateriala elkarlanean sortzeko. Andoni Egañak “Bertsolaritza eta ahozkotasuna hezkuntza arautuan” hitzaldiaren harira, horrela definitu zuen bertsolaritzaren garrantzia hezkuntza arautuan:

Hiztegia aberasten laguntzen du. Jendaurrean ahoz egiteko gaitasunak fintzen laguntzen du. Kantatzen ikastea, kontatzen ikastea da; noiz suabeago, noiz ozenago, noiz isildu... Sormenaren pizgarri ere bada. Errazagoa da hesipean

sortzea, baldintza batzuen barruan. Hesirik gabe sortzea zailagoa da, paper zuriaren aurreko bertigoa hor dago. Bertsoak laguntzen du paper zuriaren aurrean plantatzen. Diskurtso mota desberdinak lantzeko abilitadea lantzen da, estrategia komunikatibo desberdinak jostekoa. Memoria lantzen da. Dialektikaren artean trebatzen laguntzen du, diskurtsoa ia inoiz ez baita bakarkakoa, normalean joan-etorrikoa izaten da. Argudiaketan ekarpen handia egiten du, orain jarrera bat eta segidan kontrakoa defendatzen asmatu behar baita bertsotan. Bizitzarako eskola aparta, zalantzarik gabe. (Egaña, 2015)

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen datuen arabera, hauek dira 2014-2015 ikasturtean hezkuntza arautuak utzitako zenbakiak:

| | Euskal Herrian | Bizkaian | Getxon |
|-------------|----------------|----------|---------------|
| Ikastetxeak | 412 | 178 | 10 |
| Ikasleak | 21.777 | 7.700 | 1.017 |
| Irakasleak | 38 | 15 | 2 |

Itxaso Paia, Josu Landeta eta Nahikari Ayo ALBEkideak bertso-eskolan eta hezkuntza arautuan ibilitako irakasleak dira eta hirurak bat datoz; bertsolaritza euskararen ahozkotasunerako ezinbestekoa da. Itxaso hainbat urtetan ibili da Uribe Kostako ikastoletan bertsolaritza lantzen eta irakasten eta, ikusi ahal izan duenez “euskaraz hitz egiten irakasten dute eskoletan eta bertsolaritzaren bidez euskaraz bizitzen eta euskara bera bizitzen irakasten da. Bien irakaskuntzen elkartetak ahozkotasunean erabateko eragina dauka.”

[Olatz Larrinaga]: *Bertsolaritzak zure euskara mailan eragina izan duela uste duzu?*

[P.L]: *Izugarria. Euskara etxean erabiltzetik, ia edozein tokitan erabiltzera iritsi naiz. [...] bertso-mundua arnasgune bat izan da nire bizitzan. Euskaraz gehiago aritzeak nire maila izugarri hobetu du, eta oraindik asko hobetuko duela uste dut.*

[M.B]: *Bai, bai hiztegian bai erraztasunean eta baita naturaltasunean ere.*

Eragin horren adibide da Bizkaiko Eskolarteko txapelketa. Aurten, 2015ean, 32 gaztek hartu dute parte bat-bateko txapelketan; Uribe Kostatik 12, Durangotik 6, Deustutik 4, Gernikatik 3, Larrabetzutik 2, Abadiñotik 1, Arrigorriagatik 1, Arratiatik 1, Mungitik 1 eta Berrizetik 1. Ikusi daitekeenez, ALBE partaidetza handiena duen bertso-eskola da eta emaitzen aldetik ere, positiboena eta nabarmenena. Izan ere, bat-bateko txapelketako finalean bi ordezkari izan zituen eta idatzizko finaleko maila guztietan saridunen bat ere egon zen:

-
- Fermin Reinicke: txapelduna (DBH 3, 4 eta Batxilergo kategoria)
 - Maider Barañano: hirugarren (DBH 3, 4 eta Batxilergo kategoria)
 - Gorka Zabala: 2. (DBH 2 kategoria)
 - Uxue Ramirez: txapelduna (6. LH kategoria)
 - Lur Piris: 2. (6. LH kategoria)
 - Amaïur Rasines: txapelduna (5. LH kategoria)

ALBEko lanaraen arrakastaren beste adibide bat, urtero ospatzen den *Bertsolari gazteen BBK sariketea* dugu. BBKren Gizarte Ekintzak euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz, Bizkaiko Bertsozale Elkartearekin eta Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin elkarlanean antolatutako taldekako -eskualdeka- lehiaketa da. 1993an hasi ziren egiten eta 2015ekoa 23. edizioa izan da. ALBEkideak 12 finaletan egon dira, edizio erdietan, eta 7 aldiz izendatu dituzte txapeldun eta 5 txapeldunorde. Seguru asko, ALBEkoen taldea (Ipar Uribe, gaur egun, Uribe Kosta) txapelketa guztietako bigarren eskualde erdaldunetakoa da, Enkarterrien atzetik, eta 12 finalerara heltzea atzetik dagoen lana txalotzeko modukoa da.

Hiztun komunitatearen ikuspegitik, mugimendu honek egindako gauza bat azpimarratuko nuke: ehuna sortu. Herrialde desberdinetan, herriz herri euskararen sorkuntzaren inguruko kapital sozial txikia ehun du. Pertsonen zirkuituak eratu ditu, gizarte-haria ekoiztu du. [...] Bertsoak hizkuntzaren alde sortzailea ukitzen du, eta komunitate-sare txikiak sortzen ditu leku batzuetan, konplizitateak, protagonismo barreiatuak, gozamen uneak, belaunaldien arteko dinamika batzuk. (Sarasua, 2013)

[U.M]: *Lagun koadrila arrunt baten antzera funtzionatzen dugu, nahiz eta gero bakoitzak bere koadrila partikularra izan. Oso gustura egoten gara elkarrekin, eta juergarako, bertso-saioetarako, afaltzeko...batzen gara.*

[M.B]: *Gehienbat jaietara eta giro euskaldunetara hurbiltzen gara, txapelketetara, kontzertuetara, gaztetxeetara, gainerakoekin egian egingo ez genituzkeen gauzak egiten ditugu. Gainera lasai hitz egiteko lekua ere lortu dugu gehiengoak, naturaltasun handiagor hitz egiteko, ez dakit nola baina urte gutxiren buruan konfiantza izugarria lortu dugu elkarrekin.*

[P.L]: *Nire betiko koadrila izugarri maite dudan arren, bertso-eskolako koadrilarekin sentitzen naiz erosoan.[...]Askotan gainera, gure koadrilarekin egin ezin ditugun planak (gure koadrilakoen estiloarekin bat ez datozen euskal giroko planak) elkarrekin egiten*

ditugu, eta planak zena baino askoz hobea izaten amaitzen du. Bertso-munduari eskertu beharrekoa asko da, eta argi daukat oholta ez dela bertsolaritzak duen garrantzitsuena, giroa baizik.

ALBEko gazteenak ikastolan hasten dira bertso munduarekin harremanetan eta gero DBHra pasatzean ALBEra joateko gonbitea egiten diete. Asko dira bertsoaren trena hartzen dutenak, 2014-2015 ikasturtean 30 gazte berri izan dira eta datorren ikasturtean beste horrenbeste espero dituzte.

[I.P]: *Bertso-eskola txiki geratzen ari zaigu hainbesteko eskariaren aurrean*

Normalean taldeka egiten dute salto hori, Fredi Paiak Bizkaiko txapela irabazi ondoren esan zuen moduan; “bertsolaritza talde lana da”.

[J.S]: *Onea, baina, salto hori taldean ematea izaten da. Gu ohartuta gaude taldetxoak egiten direnean, hau da, bertsozaleak ez ezik, adiskideak ere badirenean, errendimendua handiagoa izaten dela, eta haien bertsozaletasuna askoz luzeago irauten duela.*

4.5. *Etorkizunari begira, zer?*

Joseba Santxok horrela deskribatzen du ALBEren etorkizuna: “Aurreak erakusten du atzea nola dantzatzu”; izan ere, orain arte egindakoak adierazten du zein bide jarraitu. Josebaren ustez, ALBEren ardatza, zalantza gabe, bertsogintzaren transmisioa da, edo horretan jarraituko dute; bertsolariak sortzen, eta aurtengo leloak (35 urte hitza bihurtzen arte) dioen moduan, bertsolari artistak sortzen ahalegintzea.

5. ONDORIOAK

Hemendik aurrera norbaitek galdetuko balu, zein da gune erdaldun bateko bertso-eskolaren funtzioa, askok agian ez lukete jakingo zer erantzun, baina ALBEkideek harro esan dezakete: euskal hiztunak batu, sortu eta motibatu. Izan ere, urtero antolatzen duten ekitaldietan makinatxu bat jende batzen dute; euskaldunak, hasiberriak eta euskaraz ez dakitenak ere!

ALBEren ekitaldiak beti izaten dira aitzakia Getxoko euskaldunak batzeko eta urtero-urtero ikusten da nola talde hori handitzen doan.

Dokumentu honen hasierako galderari bueltatuz; zein funtzio dauka bertso-eskola batek gune erdaldun batean? Gainontzeko bertso eskolei buruz ezer gutxi esan dezaket baina ALBEri buruz Getxoko euskalduntasunaren oinarri eta elikagaia dela argi dago. 35 urte eta gero –arin esaten da baina mende laurdena baino gehiago da...- bizirik eta osasuntsu egotea eta gainera erronka berriak izatea meritu handia da.

Bertsolaritza baserri giroko adierazpen izatetik gizarte industrial edo post-industrialera garatzera pasatu da. Etapa berri honetan, hala ere, nolabait komunitateari kantatzearen zentzutik zerbait gordetzen duela dirudi. Ez dago hainbesteko banaketarik adinari eta perfil sozialei dagokionez, ez behintzat bestelako hainbat emanaldi eta kontsumo kulturaletan den bezalakorik. Bertsolarien hainbat emanalditan publikoaren osaketak nolabaiteko komunitate zentzu bat iradokitzen du, adin eta izaera guztietako jendea biltzen duen herri-jaien elkarretaratze sinbolikoaren zentzu aharraren (eta berrituaren) baitan. Hala ere, aspektu hau aldatu egiten da leku batetik bestera eta kontu honi ñabardurak egin behar litzaizkioke hainbat aldetatik, izan ere, aldaketa garaian eta joera askoren arteko tentsioan bizi den gizartea baita gurea. Nola nahi, esan liteke neurri batean bizirik dirauen ezaugarria dela bertsolaritza. (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001)

Agian asko esatea da, baina nik argi ikusten dut Algortako Bertsolari Eskolari esker euskara bizirik jarraitzen duela Getxon. Urtero milaka euskaldunek bertsoa aitzakia hartuta batzen dira euskaraz naturaltasun osoz egiteko eta euskaltzaletasunaren sarea osatzeko.

Euskararen batasuna bideraturik badugu ere, oraindik orain herren gaude ahozko euskararen batasuna egiteke baitugu. Bertsolaritzaren bidez, hizkuntza bizia indarrean jarritz, izugarritzko altxorra dugu esku artean eta hori erabili beharrean gara.

6. ERANSKINAK



Departamento de Justicia
y Administración Pública

ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA "ALBE"

Nº Registro: AS/B/05093/1995
Fecha de constitución: 18/01/1995
Fecha de inscripción: 02/02/1995
Domicilio: Karitate, 1
Municipio: Getxo
C.P.: 48991
Territorio: Bizkaia

Clasificación: Cultura General

Finalidad: - Impulsar las actividades culturales para mejorar la cultura de nuestro entorno. - Difundir, apoyar y aprender las diferentes características del euskera, el folklore y la cultura vasca. - En general, todo lo que ayude al desarrollo individual y en grupos del aprendizaje, difusión y enseñanza de la expresión literaria, del mismo modo, organizar cursos monográficos alrededor de los mismos temas en grupos de trabajo restringidos. - Impulsar acciones culturales que unan los diferentes vínculos culturales de nuestro pueblo.

Algortako bertsolari eskolaren hasierako urteetan. Joseba Santxo irakasle
(arg.:argia.com):



Zerbait konprometituagoa nahi zuten eta Aldai patronatura mugitu zituzten eskolak
(arg. Getxosarri bloga):



ALBEren ekimenek plazak betetzen ditu urtero-urtero. 2015eko bertso-saio mundiala
(arg. ALBE):



7. BIBLIOGRAFIA

- ✓ J. SARASUA, A. EGAÑA, J. GARTZIA, 2001, *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak*, 2001, Bertsozale Elkartea
- ✓ A. BARANDIARAN, 2012, *Beste laurogei urtian*, Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.
- ✓ HAINBAT EGILE, *Bertsolaritzaren Curriculum Hezkuntza Arautuan*, Lanku bertso zerbitzuak S.L, Bertsozale Elkartea
- ✓ A. EGAÑA, 2015, “*Bertsolaritzaren ezaugarri behinena belarri ernea da eta horretan asko zor dio ahozkotasunari*”, Gara egunkaria, Gaur 8.
- ✓ X. PAYA, 2012, “*Normalizaziorako, ekimen iraunkorragoak dira bertso eskolak, euskaltegiak baino*”, Berria egunkaria.
- ✓ A. KAZABON, M. MENDIZABAL, 1993: *Ahozkotasuna eta hizkuntza*, Jakin aldizkaria, 75 zk.
- ✓ X. PAYA, 2013, *Ahozko Euskal literaturaren antologia*, Etxepare Euskal Institutua.
- ✓ ARGIA, 2007, *Bertso eskolek 25 urte*: <http://www.argia.eus/bertso-eskolak/historia>
- ✓ J. SARARUA, 2013, *Hiztunpolisa: euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Pamiela argitaletxea.
- ✓ Wikipedia, Entziklopedia askea, 2015: Euskararen normalizazioa:
https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Euskararen_normalizazio&oldid=4819469